

HERRI ANTZERKIA • Lekeitio, Eskiula eta Zarautz, uda honetako hitzordu nagusiak

6

◀ aurreko orrialdetik dator

tzuna argigarria da: «Ni beti mando bat izan naiz, eta ez dakit zelan urtengo dauen orain Ahab kapitaina izate kontu honek... Lotsa pixka bat galtzearen eman nuen izena. Duela 10 urte herrian *Gastibeltza-ren karabinak* ikusi nuenean, asko gustatu zitzaidan. Halako inbidia bat sortu zitzaidan, eta hau antolatzan zebiltzala jakin nuenean, izena eman nuen. Nola irtengo duen? Auskalo! Herriko talde asko dabil honetan. Istorioa ezagutzen nuen. Primeran. Ni gustura nago».

Umore onez agertu digu bere rola Txopiteak, eta berarekin amaitu berrian, gizon bat serio-serio ikusi dugu gitarra bere kaxan sartu eta frontoitik irteteko bidea egiten. Iñaki Laka du izena. Herriko alguazila ogibidez, herriko estudiantinako eta txarangako kide da zaletasunez. «Duela 10 urte *Gastibeltza-ren karabinak* ikuskizunean parte hartu genuen estudiantinakoek. Oraingo honetan pieza batzuk jotzeko laguntza eskatu digute, eta hemen gaude. Ihauteri martitzenerako 40 bat lagun biltzen gara urtero, eta gaur 25 bat bildu gara. Nik uste dut parte-hartzaile guztiak oso ilusionaturik ibiltzen direla. Ni txarangakoa ere banaiz, eta horrek ere joko du. Herriko bandak ere bai. Denok hartuko dugu parte».

• Beste entsegu bat: Zarautz.

Gaueko bederatzi eta erdiak dira. Astelehena da. Ia bi hilabete gertatzen dira oraindik irailaren 9rako, Zarautzko Euskal Jairako, Alproja-koek urteroko bilakatu duten herri antzerki hitzordurako, baina abuztuan jai hartu nahi dute, eta uztaila baliatu behar beraz lana aurreratzeko. Zarautzko industrialdeko pabilioi bat dute entsegu tokia. Garbiñe Aizpitartek gaur entsegura hurbildu diren ia 50 lagunak dantzan jarriak ditu. Gehienak izerditan daude dagoeneko. Ez da harritzekoa. Ordu erdi daramate azken dantza entseatzen, eta pabilioian kanpoan baino gradu batzuk gehiago daudela erakutsiko luke termometro batek eskura balitz. Musika ekipoko zinta atzera bota, jarri hasieratik, eta berriro hasi dira. «Bat, bi, hiru, lau, aurrera!», dio Aizpitartek jende multzoaren aurrean jarrita. Inaxio Martiarena jende artean dabil dantzan, eta bera ere pausoak markatzen dabil. «...Altxa beso horiek! Bat, bi, hiru eta lau. Oinez orain! Erne bueltarekin!». Hala ere, bada kale egin duenik ere. Azken mugimenduak kontraeskura harrapatu duen dantzariak berehala hartu du ordea gainontzekoen txanda. Lagunak lagundu dio, horretarako baita laguna, beste gauza batzuen artean.

«Ongi dago, baina bukaera ez duzue garbi markatu. Berriz egingo dugu», dio Aizpitartek. Norbaitek

atsedena eskatu du. Barre batzuk egon dira, baina inork ez dio erantzun. Bakoitzak bere lekua hartu, eta hasi dira dantzan berriro.

Aktoreek dantza egin bitartean, Mitxel Gorrotxategi, Patxi Santamaria, Leire Ondarra, Mikel Elorza eta Alproja taldeko beste zenbait partaide asteko entseguen egutegia prestatzen ari dira. Aurten ere 55 bat antzezle dituzte zuzentzeko.

Dantzaldia amaitutzat jo dutenean, Mitxel Gorrotxategik asteko plana azaldu die dantzari-aktore izerditsuei. «Gaur lehen agerraldikoak geratuko zarete, testua irakurtzen eta lantzen joateko. Bihar, bigarren agerraldikoak azaldu...». Lehen agerraldikoak buelta hertsu batean bildu dira, bakoitzak bere gidoia eskuetan duela. Gainontzekoak, hitz batzuk ari dira egiten euren artean etxera joan aurretik zigarrotxo bat erre eta barre batzuk botaz. Patxi Agirre da horietako bat. Lorezaina da eta bosgarren urtea du hau Alprojako hitzorduari erantzuten diola. «Kanpoan ibili nintzen ikasketak egiten eta urtero ohitura nuen Alprojakoak Euskal Jai egunean ikusteko. Urtero inbidia pasatzen nuen hura ikustean.

Ikasketak bukatutzat eman nitue-nean herrira itzuli nintzen, lana biltzekotan, eta parte hartu behar nuela erabaki nuen. Lehen urte hartan giro ona topatu nuenez, segitu egin dut».

Iratxe Aranburuk ere giro ona aipatu digu Alprojan hainbat jendek urtero izena emateko arrazoi mo-



Eskiulan jasotako irudi honek gogoratzen digu herri antzerkian jantziak ere egin behar direla.



Taldeak lotsa galtzen laguntzen omen die parte hartzaileei (goian, Zarautz). Mozorro xume batek ere bai, antza (behean, Lekeitio).



duan. «Herriko jendeak parte hartzen zuela ikusi nuen, eta lagun bat eta biok joan ginen izena ematera, 13 bat urte nituela. Hasieran gogor egin zitzaidan joatea, baina behin bertaratuta, konturatzen zara antzerkia badela, baina batez ere giro bat. Ezerezetik sortzen dela eta bakoitzak beretik emanez gero dena onartzen dela». Soin heziketako irakaslea da egun neska hau, eta ohol-tza gainean egon ohi den arren, behean ikusle direnen rola ere nabarmentzekoa iruditzen zaio. «Hor daude urteroko ikusle finkoak. Neu txikia nintzen urtero joatzen nintzen amarekin antzerkia ikustera, eta orain neu ikusten nau ohol-tzan. Horientzako, Alprojen lana Euskal Jaietako gauzarik inportanteena da. Ez alferrik nire ustez ikusleen artean herritarrak biltzen dira bereziki».

Iñaxio Martiarena ados da erabat Aranbururekin. Ikusleak ezinbestekotzat jotzen ditu. «Herritarrak ikustera joango ez balira, gu alferrik ariko ginatke. Biharamunean izaten dira kontuak. Batzuk beti oso gustura agertzen dira. Beste batzuk, gure begi kritikoa dira. Guztien iritziek laguntzen digute urtetik urtera ikuskizuna hobetzen». Hobekuntza eta bilakaera horren lekuko zuzena dugu Martiarena, 1978an *Ezkontza zaharra* izeneko emanaldia antolatu zuen Hodeiertz dantza taldean baitzebielen, gero Alproja izena hartuko zuen herri antzerki egitasmoa bilakatuko zena. «Hasieran dantzak zuen protagonismoa, baina gero antzerkia ere sartzen hasi ginen, eta gaur egun esan dezakegu batez ere antzerki ikuskaria dela. Parte hartzaile aldetik, denetarik egon da. Mamiari buruz, dantza eta satira dira osagarri bi nagusiak».

Mitxel Gorrotxategi zuzendaritza taldekoa 1979an gehitu zen urteroko herri antzerki emanaldi honen asmora. Patxi Santamaria urtebete beranduago. Aide antzerki taldetik zetorren, eta istorio zahar batzuk kontatuz gaur egungo erabateko askatasunera heldu direla diote. «Urteen poderioz, nahi dugun istorioak kontatzera heldu gara. Ahaztu gabe inoiz Euskal Jai eguna dela, herrikoia izango dela. Behin gutxieneko eskema hori markatuta, ahalbide humanoak moldatu eta piezak kokatzen joatea da kontua. Guk askotan esaten dugu sanferminetako peñen pankartak urtean zehar gertatutako komeria guztien isla diren bezala, gurean herri antzerki baten formulazioan ematen dugula. Azken finean, pentsatzen dugulako antzerkiak horixe izan behar duela, satira bat, umore fin eta onean».

Herri antzerkiaren balioa horixe da, hain zuzen ere, Alproja-koen ustez: «Protagonismo ahalik eta zabalena eskaintzea herriari urtean egun batez bederen».